Maria Begoña Pedrosa Lobato
Haurreskolak Partzuergoko Lehendakaria

Irune Muguruza Mendarte
Haurreskolak Partzuergoko gerentea

LAB Sindikatuak ezinbestekotzat jotzen du Haurreskolak Partzuergoko Lan Hitzarmena osorik garatzeko eta bertan jasotako neurri eta eskubide guztiak inplementatzeko berehala negoziazioak berrabiaraztea.

Gauzak horrela **LAB Sindikatuak** honakoa azaltzen du:

Lehena._2025eko otsailaren 10ean Haurreskolak Partzuergoak eta LAB Sindikatuak sinatutako Lan Hitzarmena ez dagoela osotasunean garatuta, gaurko egunean ez dela EHAAn argitaratu eta 2026ko abenduaren 31an iraungitzen dela.

Bigarrena._ Lan Hitzarmenaren 7. artikuluak Batzorde Parekidea arautu eta eta haren eskumenak ezartzen dituela: itundutakoa interpretatzea, aztertzea eta betetzen dela zaintzea, bai eta hitzarmenaren eta eranskinen aplikazioaren jarraipena egitea ere, hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

Hirugarrena._ Lan Hitzarmenaren 8. artikuluan honakoa jasotzen dela:

"Lan Hitzarmenaren sinatzaileek plantillak eta hauek esleitzeko erizpideak aztertuko dituzte batzorde parekidean, ratioak aztertuz, negoziazio eta adostasuna bilatuz, administrazioak arlo horretan dituen eskumenei kalterik egin gabe."

Laugarrena._ Aurreko paragrafoan jasotakoari jarraituz 2026ko martxoaren 2an Haurreskolak Partzuergoak eta Haurreskolak Partzuergoko gehiengo sindikalak sinatutako eta Lan Hitzarmenaren eranskina den Plantilak esleitzeko akordioan honakoa jasotzen dela:

"Azken urteetan Haurreskola Partzuergoan izandako aldaketak kontutan hartuta, kudeaketa alorrean zerbitzuaren dimentsionamendua aztertuko dela 2026 urteko azken hiruhilekoan".

Bosgarrena._ Lan Hitzarmenaren hirugarren xedapena gehigarrian honakoa jasotzen dela:

*"**Kudeaketa alorreko langileen barne sustapena, ordezkoen araudia eta ordezkapenak egiteko kasuistikak negoziatzeko egutegia zehaztuko da lan hitzarmenaren sinadurarekin batera. Barne sustapenen araudia, ordezkoen araudia, ordezkapenak egiteko kasuistikak 2025-2026 ikasturteko hirugarren hiruhilekoan negoziatuko dira. Kudeaketako lan pòltsan izen ematea eta baremazioa 2026ko bigarren sei hilabetetan egingo da."***

Horregatik guztiagatik, **LAB Sindikatuak** Mahai Parekidea eta Mahai Negoziatzailea deitzea eta negoziazio egutegi bat adostea **eskatzen du** gutxienez honako gai hauek landu eta horien gainean adostasunak bilatzeko:

Lehena._ Lan Hitzarmeneko 20. artikulua garatzea eta Kudeaketako langileen telelana eta lan ez-presentziala ezartzeko beharrezkoak diren izapideak eta kudeaketak berehala abian jartzea.

"Kudeaketa alorreko pertsonalak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko funtzionarioen mahai sektorialaren eta lan-kontratudunen mahai sektorialaren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako langileentzat araututako baldintzekin telelana eta lan ez-presentziala egin ahal izango du.

Bigarrena._ Kudeaketa alorreko egungo egoera eta egiturazko beharrei erantzuteko kudeaketa-departamentuaren dimentsionamenduaren azterketa, baliabide pertsonal eta teknologikoak egokitzea, gutxienez honako aldagaiak kontuan hartuz:

* Digitalizazioak eta tresna teknologikoek sortzen dituzten behar berriak lehenestea.
* Departamentuaren egungo lan-karga eta eginkizunak aztertzea.
* Langile-kopurua eta lanpostuen banaketa benetako beharretara egokitzea.
* Langileen lan-baldintzak, lanaren banaketa eta zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko neurriak.
* Beharrezkoak diren lanpostuak eta baliabide teknologikoak identifikatzea eta horiek ezartzeko plangintza zehaztea.

Hirugarrena._ Kudeaketa alorreko langileen barne sustapena, ordezkoen araudia eta ordezkapenak egiteko kasuistikak.

Laugarrena._ Plantilak esleitzeko irizpideen akordioaren berrikuspena

Bosgarrena._ Lan Hitzarmena osotasunean garatzea:

* Kudeaketa alorreko pertsonalgoaren ordainsariak EAEko Administrazioan funtzio bereko lanpostuen ordainsariekin parekatzea
* Gizarte-funtsa eta formazio funtsak
* Urte sabatikoa
* Hitzarmenean aurreikusitako gainerako neurri eta planak

Aldez aurretik eskerrak emanez jaso agur bat.

LAB Sindikatua

Euskal Herrian, 2026ko urriaren 28an